GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgarritasuna eta hausnarketa-potentziala eskutik doaz Joana Vasconcelosek erakusketa honetarako egin dituen proposamen iradokitzaileetan. Bere sorkuntzen formek eta harridura sortzeko duten gaitasunak ikusleak limurtzen ditu, eta horiek, estetikak txundituta, artistak lantzen dituen gaien sakontasuna berriz aztertzeko gonbita jasotzen dute.

Seguros Bilbao aseguru-etxearentzat, Guggenheim Bilbao Museoaren Babesle den aldetik, atsegin handia da erakundeak antolatu duen erakusketari babesa ematea. *Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz* erakusketak Museoaren gunea bera gainditzen du, hiriko espazio publikoa hartzeko; halaber, artista portugaldarraren bi hamarkadako lanak biltzen ditu, nazioartean oihartzun handia duen artistarenak alegia.

Maiztasunez, Vasconcelosek garrantzia handia eman ohi dio ehunari, eta bigarren mailakotzat jo diren artisau-lanak erreskatatzen ditu etxeko eremu intimotik. Tradizioz, ehunek estali izan gaituzte, bigarren azal baten antzera, eta sarritan lotura izan dute erritual edo zeremoniekin. Akabera eta prozesu industrialen nagusitasunari aurre eginez bezala, Vasconcelosen piezetako asko eskuz egiten ditu bere estudioko lantalde handiak. Hala, artisau-teknikak barreskuratu eta puntako teknologiarekin integratzen ditu Vasconcelosek —bere obrek soinu-, mugimendu- edo argi-efektuak dituzte sarri—, kritika eta umorea antzematen zaizkion garaikidetasunari buruzko diskurtso bat eskaintzeko, artearen historiari, gizateriaren etorkizunari eta gaur egungo jendartearen berezitasunei erreferentzia eginez.

Vasconcelosentzat artea funtsezkoa da gure gizartea eta kultura interpretatzeko. Eta Seguros Bilbaok ere bat egiten du gogoeta horrekin: hor du sorburua kultura sustatzeko hartu dugun konpromisoak, eta, bereziki, Guggenheim Bilbao Museoarekin dugun loturak; nazioarteko erreferentzia den kultura instituzioa izanik, oraingo honetan gure ekarpena egiteko aukera eman digu erakusketa antologiko ahaztezin honetan. Benetan espero dut ekimen honek sorrarazi digun irrika berberaz gozatuko duzuela erakusketa.

Ignacio Álvarez
Grupo Catalana Occidente erakundeko Kontseilari Delegatua

Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz

- Datak: 2018ko ekainak 29–azaroak 11
- Komisarioak: Enrique Juncosa eta Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoa
- Babeslea: Seguros Bilbao

- Irudi deigarri, dibertigarri eta zuzenak eraikiz, zeharka aipatzen dituztenak gizarte kontsumista, postkolonial eta globalizatuetako arazo soziopolitikoak, Joana Vasconcelosek immigraziotik genero-indarkeriara doazen gaiei heltzen die.

- Eguneroko bizitzaren alkimista baten antzera jardunez, artistak itxuraldatu egiten ditu eguneroko objektuak eta kontsumo-gizartearen klixeak, eta artelan ireki bihurtzen ditu, esanahi karga nabarmenarekin.

- Erakusketak obra berriak hartzen ditu, besteren artean: *I'll Be Your Mirror*, maskara veneziar izugarri handi bat, brontzez markoztatutako ispiluez osatua; edo *Solitarioa* (*Solitário*), eraztun erraldoi bat, luxuzko automobiletako hagunekin eta whiski edalontziekin osatua, emakumeen eta gizonen desioaren sinbolo estereotipatuenak batzen dituen obra batean.

- *Egeria* obra Museoaren Atrio osoan zehar hedatzen da, oihal, testura eta kolore desberdinez osatutako landare bat balitz bezala; metafora bat da: emakumeak museoak okupatzen irudikatzen ditu.

Guggenheim Bilbao Museoak *Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz* erakusketa aurkezten du. Hogeita hamar obra biltzen ditu, gaur egun nazioartean oihartzun handiena duen artista portugaldar horrek 1997tik orain arte eginak. Museoko Atriorako propio sortutako instalazio bat barne hartzen du erakusketak, beste obra sortu berri batzuekin batera. Erakusketa honek Seguros Bilbao du babesle, eta bertan, bete-betean murgildu ahal izango da ikuslea artistaren unibertsoan; munduari buruzko ikuspegi zuzena eta umoretsua duen artista bat da bera, eta gure gizartearen kontraesanetako asko azaltzen dizkigu ahaleginik gabe, itxuraz, bere obrak.

Joana Vasconcelosen lanetako batzuk izugarri konplexuak dira: mugitu egiten dira, soinu egiten dute edo argitu egiten dira. Konplikazio horiek ondo ebazten ditu artistak Lisboan duen hiru mila metro karratuko bere estudioan, berarekin lan egiten duten berrogeita hamarretik gora kolaboratzaile finkok osatutako taldearen laguntzarekin. Bere obrak sortzean, eguneroko bizitzako material ugari erabiltzen ditu Vasconcelosek, esaterako, etxetresna elektrikoak, azulejuak, oihalak, herri-zeramika, botilak, botikak, pixatokiak, dutxak, sukaldeko tresnak, telefonoak, autoak eta plastikozko mahai-tresnak. Material horiekin irudi deigarriak, umoretsuak eta zuzenak eraikiz, zeharka aipatzen dituztenak gizarte kontsumista, postkolonial eta globalizatuetako arazoak, immigraziotik genero-indarkeriara doazen gaiei heltzen die artistak. Umore sena beti da nabaria eta piezek esanahi irekiak eta ez dogmatikoak iradokitzen dituzte: horrek, hain zuzen ere, hurbiltzen ditu 1990eko hamarkadaren bukaeran sortutako estetika erlazionalaren inguruko proposamenetara, obrak behatu eta interpretatzeko unean ikusleak parte hartzea eskatzen

baitzuten horiek ere.

Kanpoko erreferentzietan joria, Louise Bourgeois-etik hasi eta herri kulturaraino, urregintzatik modaraino, artisautzatik azken belaunaldiko ingeniaritzaraino, Vasconcelosen lanak, funtsezko beste gai batzuen artean, identitateaz dihardu bere dimentsio guztietan, eta artistaren hausnarketa aditzera ematen digu, bere jarrerari buruz emakume eta artista portugaldar eta europarra den aldetik. Gainera, bere obraren funtsezko alderdiak dira baita ere bere piezak hartzen dituen arkitekturarekin obra horiek berek ezartzen duten harremana, artelanaren izaerari buruzko hausnarketa metalinguistikoa edo erabateko elementu poetikoak.

IBILBIDEA ERAKUSKETAN ZEHAR

Vasconcelosen ibilbidearen lehenbiziko urteetako pieza enblematiko batzuek ematen diote hasiera erakusketari, besteak beste: *Valium ohea* (*Cama Valium*, 1998), *Burka* (2002) eta *Andregaia* (*A Noiva*, 2001–2005). Hasierako obra horietan, emakumezko identitatearekin zerikusia duten gaiei heltzen die artistak, eremu pribatuan nahiz esfera politikoan eta sozialean. Horiekin batera, erakusketak azkenaldiko obra nabarmenetako batzuk hartzen ditu, besteren artan, *Marilyn* (*AP*) (2011), *Lilicoptère* (2012), *Indar betean* (*A Todo o Vapor*, 2012) –bere hiru bertsioak daude ikusgai– eta *Call Center* (2014–2016); obra horietan, etxetresna elektrikoak eta sukaldeko tresnak baliatuz, emakumezko identitatearen gaia modu sinple eta ironiko batez arakatzen jarraitzen du Vasconcelosek. Hala, *Marilyn* obra izugarrizko takoi altuak dituzten zapata pare batek osatzen dute, altzairu herdoilgaitzezko eltzeekin eginak; *Indar betean* lurrunezko lisaburdinek osatzen dute, robotentzako koreografia antzeko batean mugitzen direnek; eta *Call Center* errebolber beltz erraldoi bat da, bakelitazko telefonoekin egina, eta bizitasun handiko sinfonia elektroakustiko harrigarri bat igortzen du, telefono-hotsak manipulatuz Jonas Runa konpositoreak obra honetarako sortua.

Erakusketa honek aukera paregabea eskaintzen digu bertarako propio sortutako pieza berriak ikusteko, horien artean, *I'll Be Your Mirror*, maskara veneziar erraldoi bat, brontzez markoztatutako ispiluez osatua; *Solitarioa*, eraztun izugarri handi bat, urre koloreko auto-hagunekin eta kristalezko whiski-edalontziekin osatua, eta baita *Pixatokiak*, *Kako-orratzezko koadroak* eta *Bordalos* sailetako beste obra batzuk ere. Berriz ere, lan horiek emakumezko identitatea aztertzen dute era desberdinetan, adibidez, modu barregarri batean Marcel Duchampen irudiak bere eginez, eta baita Bordalo Pinheiro portugaldarraren zeramikazko obrak ere, Vasconcelosek kakorratz-lanekin biltzen dituenak. Gainera, koadro epikoen parodia bigun eta bolumen handikoak sortzeko ere erabiltzen du kakorratz-lana, eta urre koloreko markoez inguratuta jartzen ditu ikusgai.

OBRA BERRIAK

Egeria

Erakusketak tamaina handiko obra bat barne hartzen du, *Walkiriak* sailekoa, eta Guggenheim Bilbao Museoko Atriorako propio sortua. Frank Gehryk diseinatutako espazio konplexuekin elkarrizketan, erakusketaren erakargarri nagusietako bat da zalantzarik gabe. Vasconcelosen *Walkiriak* sailak

Eskandinaviako mitologiako jainkosen izena hartzen du, eta erraboilen eta tentakuluen itxurako pieza sorta zabal bat da; pieza horietako bakoitza ikusgai jartzen den espazioen barrualdetik hedatzen da, kolore biziko adarkadura luzeen bitartez. Ehunkiak, testurak eta koloreak nahastetik sortutako obra horiek, landareak bezala hazten doazela ematen dutenak, metafora bat dira, museoetako okupazioarena emakumeen aldetik.

I'll Be Your Mirror

Erakusketari izena ematen dion obra hau sekulako maskara veneziar bat da, oso deigarria, ezkaten antzera gainjarritako ispilu ugariz osatua; ispiluak joritasun ornamental handiko moldurekin daude markoztatuta, eta artistak berak diseinatuak dira. Pieza honek gonbidatu egiten du publikoa Gulliver maskara antzeko horretan zehar begiratzera, barrualdetik edo kanpoaldetik, berau osatzen duten ispilu ugarietan islatutako irudiari istant batean ere begirik kendu gabe. Izenburua The Velvet Underground-en *I'll Be Your Mirror* abestitik hartua da; Lou Reedek idatzia eta Nicok abestua, eta benetako *ni*a, ispilu batean bezala, islatuko duela hitz ematen duena. Gainera, badu zerikusia ere bai ondokoekin: *Ispilua* ipuina, Machado de Assis brasildarrarena; maskaren erabileran maisu handietako bat den Fernando Pessoa-ren "Maskara kendu eta ispiluan begiratu nion nire buruari" bertsoan islatutako irudia; eta baita Jung-en psikologia analitikoa ere, indibidualizazio prozesuari dagokionez zehazki, kontuan hartuta prozesu horrek gidatzen duela pertsona bakoitza bere indibidualtasunera eta integritatera, baina baita ere, behin horretaz jabetzen garenean, inkontziente kolektiboaren eta pertsonalaren arteko kontziliazioari dagokionez.

Solitarioa

Desioa dago obra honen kontzeptu artistikoaren muinean. Bertan, luxuzko automobiletako urre koloreko hainbat eta hainbat hagunek osatzen dute eraztun ziklopeo baten zirkulua, kristalezko whiski edalontziez eratutako piramide alderantzikatu batek errematatua, diamante erraldoi bat irudikatuz. Ezkon-hitzeko eraztuna osatzen du multzoak, "solitarioa" izenez ezagutzen duguna, munduan desio handienetakoa pizten duen objektua beharbada. Eguneroko bizitzaren alkimista baten antzera jardunez, artistak itxuraldatu egiten ditu eguneroko objektuak eta kontsumo-gizartearen klixeak, eta artelan ireki bihurtzen ditu, esanahi karga nabarmenarekin. Horretarako, objektu arruntez baliatzen da, eta ugaritu egiten ditu beste objektu bat sortzeko, denok berdintsu antzeman ahal izango duguna. Obra honetan estrategia bera erabili du, emakumeen eta gizonen desioaren bi sinbolo estereotipatuenak —diamanteak eta luxuzko autoak— hurrenez hurren elkartuta ezkon-hitzeko erraztun erraldoi baten itxurarekin. Mikrotik makrora igaroz, Vasconcelosek dimentsio anitz eskaintzen dizkigu, munduaren ikuspegi berezi bat islatzen dutenak, non beti dagoen hor desioa, gaurkotasunaren ezaugarri deigarrienetako batekin lotuta ikertzen dena: kontsumismoa.

Artelan hori, *Pop oilarra* (*Pop Galo*, 2016) obra bezala, Museoaren kanpoaldean instalatuko da.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan, Museoak didaktika guneak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu erakusketa bakoitzaren osagarri izateko. Hala, tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu artelanak balioesten eta ulertzen laguntzeko.

Kasu honetan, erakusketaren webguneko *Ba al zenekien...?* atalak artistak babesten dituen kausa sozialetako

batzuk hurbiltzen dizkio publikoari. Joana Vasconcelos Fundazioaren bitartez, hainbat gizarte arazori laguntza ematen die artistak: generoari lotutako gaiak, hezkuntza unibertsala, irisgarritasuna edo haurren eskubideak, besteren artean.

Ondoren zehazten ditugu erakusketaren inguruan antolatutako jardueretako batzuk.

Mahai-ingurua: ***Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz*** (ekainak 27)
Joana Vasconcelos artista, Enrique Juncosa eta Petra Joos komisarioak eta Alain Grouette, terapeuta eta naturopata, Vasconcelosen obraren hainbat alderdiri buruz arituko dira.

Maskararen tailerra (ekainak 30)
Joana Vasconcelosen obrarekin lotuta, autoezagutza emozionalari eta identitateari buruzko tailer bat emango du Alain Grouette terapeuta eta naturopata kanadarrak, energien bidezko sendaketan aditu denak. Egun osoz emango da tailerra: energia psikodinamikoa landu eta maskarak egingo dira bertan, esperientziak partekatu eta Vasconcelosen obraz gozatu ahal izateaz gain. Ingelesez, gaztelaniarako esan osteko interpretazioarekin.

Partekatutako hausnarketak*
Ezagutu itzazu erakusketaren muntaketaren zoko-mokoak eta bestelako bitxikeriak Museoko profesionalek gidatutako aparteko bisitaldi hauen bitartez.

- **Arte arduradunen ikuspegia** (irailak 19)
  Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoko arte arduraduna.
- **Funtsezko kontzeptuak** (irailak 26)
  Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko zuzendariordea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

KATALOGOA

Artista portugaldarraren obran aditu direnen testuekin, erakusketaren katalogoak bertan hartuko diren artelan berrien fabrikazioaren irudiak aurkeztuko ditu, baita haien instalazioa ere Guggenheim Bilbao Museoan.

NAZIOARTEKO IBILTARITZA

Guggenheim Bilbao Museoak erakusketa honen nazioarteko bira antolatzeko lanetan dihardu, artistarekin eta hainbat museo eta erakunde entzutetsurekin elkarlanean. Hala, aurreikuspenen arabera, erakusketa Fundación Serralves-era joango da 2019 hasieran, eta Rotterdamgo Kunsthal Museora urte horretako udan.

BIOGRAFIA

Joana Vasconcelos (1971) Lisboan bizi da eta bertan egiten du lan. 1990eko hamarkadaren erdialdetik bere lana maiz jarri du erakusgai. Bere obrak nazioarteko sona eskuratu zuen 2005eko Veneziako Bienalaren 51. edizioan parte hartu ondoren, *Andregaia* (2001–05) obrarekin. Lehenengo emakumea eta artista gazteena izan zen Versaillesko Jauregian erakusketa bat egiten, Frantzian, 2012an. Bere azkeneko lorpenen artean nabarmentzekoak dira: *Trafaria Praia* proiektua, Portugaleko pabiloirako egina Veneziako Bienalaren 55. edizioan (2013); bere partaidetza *The World Belongs to You* talde-erakusketan, Palazzo Grassi/François Pinault Foundation-en, Venezian (2011); eta bere lehenengo atzera begirakoa, Museu Coleção Berardo-n egina, Lisboan (2010).

Parte hartu izan duen erakusketa hauek ere dira aipatzekoak: ARoS Aarhus Kunstmuseum, Aarhus, Danimarka (2016); Museo Nacional Thyssen-Bornemisza, Madril (2015); Waddesdon Manor - The Rothschild Foundation, Buckinghamshire, Erresuma Batua (2015); Manchester Art Gallery (2014); Tel Aviveko Arte Museoa (2013); Palácio Nacional da Ajuda, Lisboa (2013); CENTQUATRE, Paris (2012); Kunsthallen Brandts, Odense, Danimarka (2011); Es Baluard, Palma (2009); Garage Center for Contemporary Culture, Mosku (2009); Pinacoteca do Estado de São Paulo (2008); The New Art Gallery Walsall, Erresuma Batua (2007); Istanbul Modern (2006); Passage du Désir/BETC EURO RSCG, Paris (2005); Centro Andaluz de Arte Contemporáneo, Sevilla (2003); Műcsarnok, Budapest (2002); Museu da Eletricidade, Lisboa (2001); eta Museu de Arte Contemporânea de Serralves, Porto, Portugal (2000).

Bere obra bilduma publiko eta pribatu ugaritan dago, besteren artean: Amorepacific Museum of Art; ARoS Aarhus Kunstmuseum; Caixa Geral de Depósitos; Câmara Municipal de Lisboa; Centro de Artes Visuales Fundación Helga de Alvear; Domaine Pommery; FRAC Bourgogne; Fondation Louis Vuitton pour la création; Fundação EDP; Gerard L. Cafesjian Collection; MUSAC; Museu Coleção Berardo; Pinault Collection.

Azaleko irudia:

***I'll Be Your Mirror*, 2017**
Brontzea eta ispiluak
7 aleko edizioa + AP 1
356 x 682 x 537 cm
Artistaren bilduma
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

Argibideetarako:
Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:

Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

***Valium ohea* (*Cama Valium*), 1998**

10 eta 15 mg Valium-blisterrak, dentsitate ertaineko taula margotua eta beira
30 x 144 x 200 cm
Museu de Arte Contemporânea de Elvas – Coleção António Cachola
Lana honen babesarekin ekoitzi da: Roche Farmacêutica Química
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Topagunea* (*Ponto de Encontro*), 2000**

Metal kromatua, zurezko aulkiak eta tapizeria, eta burdin termolakatua
120 x Ø 550 cm
Coleção da Caixa Geral de Depósitos, Lisboa
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Andregaia* (*A Noiva*), 2001–2005**

OB® tanpoiak, altzairu herdoilgaitza, kotoi-haria eta altzairuzko kableak
600 x Ø 300 cm
Museu de Arte Contemporânea de Elvas – Coleção António Cachola
Lana honen babesarekin ekoitzi eta berritu da: Johnson & Johnson Portugal, Lda.
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Burka*, 2002**

Oihalak, burdin metalizatu eta termolakatua, dentsitate ertaineko plataforma margotua, altzairuzko kableak, poliuretanoa, sistema elektrikoa, motorra eta tenporizadorea
670 x 600 x 500 cm
Collection MUSAC, Museo de Arte Contemporáneo de Castilla y León, Leon
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Bihotz independente gorria* (*Coração Independente Vermelho*), 2005**
Plastikozko mahai-tresnak, burdin margotua, metalezko katea, elikatze-iturria, motorra eta soinu-instalazioa
371 x 220 x 75 cm
Museu Colecção Berardo
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.
Argazkia: Daniel Malhão

***Marilyn* (AP), 2011**
Altzairu herdoilgaitzezko lapiko eta tapakiak, eta hormigoia
(2x) 297 x 155 x 410 cm
Artistaren bilduma
Lana honen babesarekin ekoitzi da: Silampos, S.A.
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Lilicoptère*, 2012**
Bell 47 helikopteroa, ostruka lumak, Swarovski kristalak, urre-xaflak, pintura industriala, urre finaz bozeldutako larruzko tapizeria, Arraiolos alfonbrak, intxaurrondo-zura, zur-harizko pintura eta oihal apaingarriak
300 x 274 x 1265 cm
Bilduma pribatua
Lana honekin lankidetzan ekoitzi da: Fundação Ricardo do Espírito Santo Silva, Lisboa
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Indar betean (Horia)* [*A Todo o Vapor (Amarelo)*] *#1/3*, 2014**
***Indar betean (Berdea)* [*A Todo o Vapor (Verde)*] *#1/3*, 2013**
***Indar betean (Gorria)* [*A Todo o Vapor (Vermelho)*] *#1/3*, 2012**
BOSCH markako lurrunezko lisaburdinak, PLC motorreduktorea, mikropozesadorean oinarritutako kontrol elektrikoko unitatea, presio baxuko sistema hidraulikoa, altzairu herdoilgaitza eta ur desmineralizatua
(3x) 155 x Ø 170 cm
Artistaren bilduma
Lana honen babesarekin ekoitzi da: Robert Bosch Hausgeräte GmbH
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Call Center*, 2014–2016**
Telefono analogikoak, altzairu gozo metalizatu eta termolakatua, soinu-ekipoa eta mikrokontrolagailu bidez kontrolatutako osziladoreak
Musika: *Call Center: Sinfonia elektroakustikoa 168 telefonorentzat*, konpositorea: Jonas Runa, 20 min
210 x 80 x 299 cm
Tia Collection
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Pop oilarra* (*Pop Galo*), 2016**
Eskuz margotutako Viúva Lamego azulejuak, LEDak, beira-zuntza, burdina, elikatze-iturriak, kontrolagailuak eta soinu-sistema
Argiak eta soinua: Jonas Runa
900 x 372 x 682 cm
Artistaren bilduma
Lana honen babesarekin ekoitzi da: Gallo Worldwide
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***Ni Te Tengo, Ni Te Olvido*, 2017**
Zeramikazko pixatokiak eta eskuz egindako kotoizko kakorratz-lana
40 x 58 x 30 cm
Artistaren bilduma
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

***I'll Be Your Mirror*, 2017**
Brontzea eta ispiluak
7 aleko edizioa + AP 1
356 x 682 x 537 cm
Artistaren bilduma
© Joana Vasconcelos, VEGAP, Bilbo, 2018.

Joana Vasconcelos
Argazkiaren kreditua: Kenton Thatcher
© Unidade Infinita Projectos.

Joana Vasconcelos
Argazkiaren kreditua: Kenton Thatcher
© Unidade Infinita Projectos